

ERAKUNDE BAT BAINO GEHIAGO: ETA HERRI MUGIMENDU GISA (1958-1968)

Tesiaren egilea: Onintza Odriozola Irizar

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Soziologia eta Gizarte Langintza

Tesi-zuzendaria: Julen Zabalo Bilbao

Tesiaren laburpena:

Ikerketa honetan erabili dugun hipotesiaren arabera, ETAk nazio-askapenerako mugimendu gisa jardun zuen 50eko eta 60ko hamarkadetan. Askapen nazionala eta askapen soziala estrategia iraultzailean uztartuta, abertzaletasunaren ordura arteko nazio ikuskera berri zuela esan genezake. Hartara, estrategia integrala eraiki ahal izateko, jendarteko ahalik eta esparru gehien erakartzen ahalegindu zen bere nazio-proiektura. Diskurtso eta estrategia hari zerion bulkadaren testuinguruan, nazio-askapenaren eta askapen sozialaren aldeko ekimen ugari jarri zen abian Euskal Herrian, nola maila soziopolitikoan hala maila kulturean. Ekimen-andana hura ETArekin batera edo ETAREN inguruan artikulatu zen nolabait: hark guztiak *ETA mugimendua* osatu zuen, gure iritziz. Horixe izan da ikerketa honen xede nagusia: hots, ETA (bere lehen hamar urteetan) herri-mugimendu bat izan ote zen ala ez aztertzea.

Horretarako, erabaki dugu analitikoki eta metodikoki ETA *erakundea* eta ETA *mugimendua* bereiztea. Bien artean bereizketa erreal zurrunik egitea zaila den arren, *erakundea* talde organiko mugatu edo itxi gisa definitu dugu, eta *mugimendua*, berriz, erakunde-egitura gainditzen duen antolaketa eta harreman-sare gisa. Ikuspegi kualitatibotik egin dugu ikerketa eta, begirada horren talaiatik, lan teorikoa eta enpirikoa uztartu ditugu. Batetik, ETAk (eta aurretik Ekinek) ondu zituzten dokumentu idatziak aztertu ditugu. Eta, bestetik, ETA mugimenduaren praxia eta bere barne- eta kanpo-harremanak ikertzeko, elkarriketa sakonaren teknika erabili dugu; 50eko eta 60ko hamarkadetan ETA erakundean eta ETA mugimenduan, barru-barruan edo inguruan, agente aktibo izan ziren 16 lagun elkarriketatu ditugu.

Gure ikerketan ondorioztatu dugunaren arabera, ETA herri-mugimendu bat izan zen 50eko eta 60ko hamarkadetan, erakunde-egitura soila gainditu zuen antolaketa eta harreman-sarea osatu baitzituen bere inguruan. Alde batetik, ETA mugimendua eta euskararen aldeko kultur mugimendua elkarri eragin ziotela ondorioztatu dugu gure ikerketan; eta aitortzeko moduan gaude, alde batera edo bestera, presentzia eraginkorra izan zuela ETAk euskalgintzaren esparru gehienetan. Era berean, ETA mugimenduaren eta langile-mugimenduaren arteko elkarreagina egiaztatu ahal

izan dugu; ETA mugimendua garaiko gatazka sozialetatik elikatu zen, eta bidenabar langile-mugimenduaren sektore bat kontzientziatu zuen, hots, nazio-askapena helburu zuen abertzaletasun akonfesional eta ezkertiar baten diskurtsoa sozializatu zuen langile-frontean. Hirugarren atalean, estrategia ekintzailea garatzeko ETAREN fronte militarren inguruan harilkatu zen sarea aztertu dugu: oinarri sendoko sareak sortzen ahalegindu zen ETA buru-belarri, eta sare haietan etakide ez zirenen laguntza ere jaso zuen, hala nola bere inguruko *laguntzaileena*, apaizen sarearena, EAJrena eta Enbatarena. Garrantzi handia eman diogu mugimendu hari genero-ikuspegitik begiratzeari eta emakumeek zer-nolako parte-hartzea izan zuten aztertzeari; baita Ipar Euskal Herrian ETAREN inguruan sortu zen antolaketa eta harreman-sarea aztertzeari ere.

Joxe Azurmendik publikoki agertu izan duen ikuspegia baliatuz, esan genezake ETA ez zela ETA erakundea bakarrik izan, fenomeno sozial zabal eta errotua bihurtu zela Euskal Herrian. Bere praxi soziopolitiko eta kulturala aztertuta, ondorioztatu dugu ez zela garaiko gizarte dinamika ororen *subjektu eragilea* izan, baina, hori bai, *kondizio* gisa funtzionatu zuela; izan ere, xehetasunak xehetasun, garaiko ekimen soziopolitiko eta kultural gehienak ETAREKIN batera eta ETAREN inguruan garatu ziren. Mugimendu haren guztiaren eraginez, ezkutuan eta lozorroan zegoen mundu abertzalea azalera atera zen pixkanaka: besteak beste, Euskal Herriaren historia, hizkuntza eta kultura landu ziren. Aldi berean, abertzaletasunaren tradizio erlijiosotik urrundu eta, akonfesionaltasuna eta herriaren eskubide sozioekonomikoak bere eginda, estrategia iraultzailearen formulazioa landu zuen pentsamoldera iritsi zen. ETAK ekarri zuen unibertso ideologikoak mentalitate-aldaketa inplikatu zuen belaunaldi berrian: hain zuzen, testuinguruaren aldaketetara egokitutako euskal mundu (abertzale eta euskaldun) berri bat.